

Añoberos Ataun,

Bilboko apezpikua, nafartarra da, Iruñen sortua. Hemen ezartzen dugun letra Bizkaia guziko elizetan irakur-arazi sari Espainiako lurra galtzer du. Baionako J. P. Vincent apezpikuak bere etxean hartuko zuela gantiatua zion. Orain afera antolatzen ari da.

Gutiz ez utz gure agurra, jauna !

# HERRIA

Nº 1232

0,80 libera

1974-ko martxoaren 14-ekoa

## EUSKALDUNA SALBATU NAHI BADUGU

Ez gira aste huntuak kasarentzat nehoen ondotik ibili. Bi letra etorri zaizkigu : lehena Txillardegia idazle gipuztar ezagutuak igorririk, Soljenitsine rusoaren des-herriratzetik eta euskaldun batzuen des-herriratzetik bere gogoeak agertzen daizku.

Bestea Anoveros Ataun Bilboko apezpikuaren letra elizetan irakur-arazia : hau adixkide batek igorri dauku hemengo euskaran moldaturik. Nahiz geroztik eskuratua dugun bizkaitar euskara garbian, den bezala uzten dugu hemen, hemengo euskaran, euskara batuari oraino oharituak ez direnek hobeki baliatuko dutelakoan.

Azken letra hunek, bai eta lehenak ere konpreni-araziko daukute agian, euskaldungoak eta euskal gauzek, guk uste baino barnagotik, hunkitzen dutela gure tokio gizona.

### Soljenitsine eta Erostrato

Alexandre Soljenitsine U.R.S.S.-etik kanporatua ! Nork ez du hau entzun ? Nork ez du oraindik horren berri izan ? Nork ez du dagoeneko bere iritzia eman ?



#### Normahirentzat ezin onetsia

Alferrik litzateke, beraz, ni neu ere Soljenitsinez hemen mintzatzea. Nork ez du ene aburua somatzen, bestalde, gertakari horretaz ? Zeharo nago erabaki ahalkargarri horren kontra. Zalantzarik ez. Zeren-eta egia ofiziala, erresumaren aparato guztia, ekonomia, prentsa, eskola, unibertsitatea, armada, den-dena goitik behera eta arras 57 urtez kontrolatu ondoren, idazle bakar baten nobela batzuek dena honda, edo koloka utz, badezakete, sozialismo horren gezurra haren ahulezia harrigarriak berak salatzen du ; eta ez dugu inolaz ere geuretzako nahi. Soljenitsine-ren arazoaren aurtean gertaturik, nork egiten du burgesiaren jokoak : Soljenitsine-ren jaurtiera gaitzesten dugunok, ala jaurtiera hori onartzen dutenak ?

ikus 5-garren paian

### Bilboko apezpikuaren letra

Euskal problema da oraino gure herrien eta elizaren bizia gehienik inarosten duten problema zailenarik bat. Dugun ikus zertan den auzia.

Bi hitzez erraiteko, huna : gure herritar multxo batzuek diote, bakoetak bere gisan, Euskal-Herria zango-pean atxikia dela eta huren zuzenak nahi dituzte heiek ezagut-arazi. Beste batzuek aldiz, kexu kexua, diote ez dela holakorik eta ez dela oraino ordrea hunkitu ere behar.

Problema horrek, asko aldetarik, badu zerbait ikustekorik gure diosesako elizaren ebanjelio-sailarekin. Paulo VI Aita Sainduak erran berria du : « Eliza katolikoak gizon bakoxtaren eta herrien zuzenez, bai-eta ere heientzat eta herriki bakoxtarentzat baitezpadako diren libertate, errespetu, zuzentasun eta bere-bertsunaz grifia haundia dauka » (Ecclesia 22-VII-72).

Hortakotz ditugu bide zenbait erakatsi nahi herritar guzietan eta bereziki fededueri, bi hel-buru dauzkatelarik delako bidek :

— Bizkaiko Jainkoaren populuak Krixto-ren sailetik ibiliz salba dezan bere herria.

— Herritarren artean batasun hobe egin dadin, zuzentasun, maitasun, egia eta libertatean finkatuz.

#### Salbamendu-bidea

Krixtoen Eliza da gizon guzientzat salbamenduaren erakusgarri eta egile. Baina gizona herri batean sortzen da, haren ganik baitu ukaiten mintzaira, ohidura eta kultura : hitz batez bere begitartea eta bere bihotza. Gizon horik dituzte egiten herriak baina, berdin-berdina, herriak ditu, hein on batean, gizonak moldatzen. Herri bakoxta da giza-kreazioaren pindar berezi bat.

Beraz ez ditake gizon bakoxta libra eta salba, gizon horren herria libratuz salbatzen ez bada. Herriki dituzte alabainan gizonak egiten. Bere herritik berexi gizonak iduri du bere erroetarik berexi arbola.

Salbamendu girixtinoia ez da bakarrik presunentzat baina arraza eta populuentzat, hauk egina baitute gizonen batasuna. Hortakotz du Krixtoen Elizak, munduaren salbatzerat deitua izanez, herri zangopilatuen librantxa baitezpadako predikatzen. « Berriz ere diogu herriki hartze dutela beren berezitasuna zaintzea » zioten 1971-ko synodo apezpikuak.

Eta Joani XXIII Aita Saindua « Pacem in terris »-etan argitzen zuen zuzen hori erranez : « Garbiki diogu minoria etnikoen izaitea edozein gisaz tratatzen duenak haundizki huts egiten duela zuzentasunaren alderat »... « Lagundu bai, eta sustatu behar dituzte funski minoriarik buruzagiek, bereziki bermatuz heien mintzaira, kultura eta ohiduren alde » (Nº 95-96).

Gertatzen dena hau da : karguan direnek berezitasun eta aberastasun horik baino lehen ezartzen baitituzte ekonomia-aren sustagailuak. Arras kondena-garria da diru-goseak manaturikako jokaera hori.

« Aberats ala pobre, herri bakoxtak badauka bere zibilisazioa, arbasoetarik ukana : egun guztitako bizia hunkitzen duten zerean,

bai-eta izpirituarenak diren goragokoetan (arte, jakintza, erlisione). Horik denek gizonarentzat zerbait aberasgarri badaukateno, haundizki damugarri litake, intres zerbaiten gatik, horik galtzerat uztea ».

Herri batek hori egiten balu, duen hoberean gal lezake, hots bizitzea gatik bere bizitzeko arazoainak galtzea litake hori.

#### Politika-bidea

Gizonen eta herrien zerbitzuko behar du izan estadoak eta haren eginbidea da daukan herrietako kulturen berezitasuna errespetetzea.

Gizon eta herri berezien zuzenak eta eginbideak estadoan eta estadoen artean nola finka, ez da hori Elizaren lana baina herri-gizona. Elizak erran dezaten gauza bakarra hau da : zuzen tasun eta bakean egiteko hori, behar duela gizonen leialki solastatu elgarrekin eta ez azkarrenek ahuleneri manatuz.

Gure erlisione katolikoa da, orotakoa eta horrek manatzen dio herri bakoxtaren zoriona susta dezan : ez da girixtinotasuna kultura bati edo zibilisazioa bati josia baina hautarik bakoxtaren behar du erro-egin, gizon bakoxtari bere hel-buru ikus-araziz.

Horren gatik Elizak nahi balako herri bati, hunek berea ez duen mintzaira batean ebanjelioa predikatu, herri hortaz trufatzea litake eta bere eliza-sailetik baztertea.

#### Elgartasun-bidea

Oroen buru girixtino salbatze hori bakan eta denen onetan egiteko, nahiz ez den sekulan lur huntan osoki eginen, beharko da herrien adixkidetasun eta elgar-goan egin, bakoxtak besteak onartzuz.

ikus 4-garren paian

### Gerlaren seinale

"Banco de Bilbao"-ko etxe batzuk, bai Baionan bai Hendaian, "cocktail Molotov" deitu suzko tresnaren bitartez, ukana dute politikazko mezu bezalako bat. Hori dea galdera ? Ala zen jadanik erantzun bat.

Abeberry jaun abokatak, euskal desterratu abokata naski, bere beribila utzirik etxe aintzinean aurkitu du biharamunean osoki suntsiturik. Hori dea erantzuna ?

Emeki emeki indarkeria sartzen ari zaugu etxe barrenean, gerlaren seinale.

Gehexan PONTTO.

